

CERVANTES PLAZAKO APARKALEKUAN PLAZA BAT ESKURATZEKO BALDINTZAK ETA SAILKAPEN TALDEAK

Plaza bat erabiltzeko eskubidea lortzeko baldintzak.

41.1.- Plaza bat erabiltzeko eskubidea lortu ahalko dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona fisikoek:

- Ibilgailuaren titularra izatea.
- Ibilgailuaren gidaria izatea.
- Benetan eta modu iraunkorrean bizitzea I., II., III., IV. eta V. eremu moduan definituriko lehentasun eremuetakoren batean, pertsona fisikoak izanez gero, eta I. eta II. eremu gisa definituriko lehentasun eremuetakoren batean kokatutako jarduera komertzial, profesional edo industrialen baten titularra izatea.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazak eskuratu nahi dituztenek A, B mugikortasun baremoa edo 10 edo gehiago izan beharko dute.
- Etxebizitzako edo merkataritza lokaleko inork ez edukitzea bere izenean garaje plazarik udal aparkaleku honetan edo beste udal aparkalekuren batean. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa da familia unitateari lehen plaza esleitzeko.

Lehen plaza esleitzeko azken baldintza hori ez dute bete beharko beste udal aparkalekuren batean plaza baten titularrak direnek, baldin eta Cervantes plazako aparkalekuan plazarik eskuratuz gero lehendik duten plaza horri uko egingo diotela adierazten duen idazki bat formalki aurkezten badute.

41.2.- Biko plaza bat eskuratzeko, famili unitateak bi ibilgailu dituela egiaztatu beharko da.

Eskabideak.

42.1.- Udalak iragarki bat argitaratuko du, agiri honetako baldintzen berri eta aparkalekuko plazen esleipenean parte hartzeko izen emate epearen berri emateko.

Udalak ahalik eta hedapen eta publizitate handiena emango die prozeduraren fase guztiei, interesdun guztiak behar den denboran eta eran beren eskubide guztiak balia ditzaketela ziurtatzeko.

42.2.- Aparkalekuko plaza bat erabiltzeko eskubidea lortu nahi dutenek udal bulegoetan eskatu beharko dute, adierazitako egunetik aurrera. Horretarako, eskabide orri bat bete beharko dute, eta dokumentu hauek aurkeztu (originalak eta fotokopiak):

- Ibilgailuaren zirkulazio baimena, garaje plaza eskatzen duenarentzat.
- Gidabaimena (indarrean egon behar du).
- Ibilgailuaren aseguru poliza.

Bi baimenok plaza eskatzen duen pertsonaren izenean egon beharko dute. Horretaz gain, dokumentu guztiek erroldako helbide bera agertu beharko dute.

Pertsona juridikoa izanez gero, zirkulazio baimena garaje plaza eskatzen duen enpresa edo erakundearen izenean egongo da, eta gidabaimena enpresarekin edo erakundearekin lan harremana duen pertsona baten izenean, eta harreman hori egiaztatzeko moduan frogatu beharko dute.

- Bizilekuan benetan eta modu iraunkorrean bizitzeko baldintza ofizioz egiztatuko da, udal erroldaren bidez eta Udalak egoki iritzitako gainerako frogabideen bidez.

- Merkataritzako jarduera profesional edo industrialaren titular izateko baldintza batez ere ofizioz egiztatuko du Udalak, Jardueretarako Udal Lizentzien Erregistroaren bidez.

- Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako plaza bat lortzeko bete beharreko ezgaitasun baldintza ezgaitasun balorazioaren ziurtagiria aurkeztuta egiztatuko da.

- Udalak eskubidea izango du beste edozein dokumentuzko froga eskatzeko edota egoki iritzako egiaztapen guztiak ofizioz egiteko, eskatzaileek aparkaleku plaza bat eskuratzeko aurkeztutako datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

Emandako eskubidea indarrean dagoen aldi osoan bete beharko dira eskakizun guztiak.

42.3.- Eskabidearekin batera, horretarako ezartzen den banku kontuan 300 euroko bermea jarri izanaren ordainagiria aurkeztuko da. Berme hori eskabideak mantentzeko eta esleipendun gisa proposatu direnek bete ez dituzten betebeharrei erantzuteko erabiliko da, kontratua formalizatzen den arte.

Zenbateko hori prozesuan parte hartzen duten eta esleipendun suertatzen ez diren interesdun guztiei itzuliko zaie.

Erreserba kontratua sinatzeari uko egin diotelako aparkaleku plaza gordetzeko eskubideari uko egiten dioten esleipendunek edo gerora behin betiko kontratua sinatzen ez dutenek, plaza batzuk esleitu gabe gelditu badira, galdu egingo dituzte, Udalak konfiskatuta, berme gisa jarritako 300 euroak, eskabidea irmoa denez gero.

Ez da ulertuko plazari uko egin zaiola plazak eskuratzeko baldintzak ezinbestez bete ez badira, ez eta ibilgailuaren zirkulazio baimenaren kopia eta gidabaimenaren kopia aurkeztu bada ere.

42.3.- Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Udalak —agiri honetako 43. artikuluko lehenetsun ordenari jarraituz— agiri honetako baldintzak betetzen dituzten eta plazen esleipenean onartu diren interesdunen zerrenda egingo du eta ikusgai jarriko du. Horrekin batera, onartu ez diren interesdunen zerrenda jarriko du, ez onartzeko arrazoia zein den adierazita.

Zerrendak argitaratu eta hamabost laneguneko epean, eskatzaileek erreklamazioak jarri ahalko dizkiote Udalari, eskabidea ez onartzeagatik, eskabideen ordenagatik edo beste edozein arrazoiengatik.

Eskabideen ordenaren zenbakia ezartzea.

43.1.- Aparkalekuko plazen erabilera esleitzeko lehentasun ordena honako hau izango da:

a) I. taldea.

I. eta II. eremuetan bizi diren ezgaituak, ezarritako baremoaren arabera (10 edo handiagoa, A edo B) garraio publikoa erabiltzeko zailtasunak dituztenak. Plaza bat emango da bizikidetza unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoitzeko, I. eta II. eremuetan aparkaleku plazarik jabetzan ez badute edo jabetzan izanik ere egiaztatzen badute arkitektura oztopoak direla-eta plaza erabiltzeko zailtasunak dituztela, edo administrazio emakidan plazarik ez badute, edozein tokitan dela ere.

b) II. taldea.

I. eremuan bizi direnak. Plaza bat emango da bizikidetza unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoitzeko, I. eta II. eremuetan aparkaleku plazarik jabetzan ez badu edo administrazio emakidan plazarik ez badu, edozein tokitan dela ere.

c) III. taldea.

I. eremuan bizi direnak. Plaza bat emango da bizikidetza unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoitzeko, nahiz I. eta II. eremuetan aparkaleku plaza bat jabetzan eduki edo edozein tokitan dela ere administrazio emakidan plaza bat izan, beste aparkaleku plaza bat behar duela justifikatzen badu. Talde horren barruan sartzen dira aparkaleku honetan beste plaza bat eskatu duten I. eremuko bizilagunak.

d) IV. taldea.

I. eremu gisa definituriko lehentasun eremuan kokatutako jarduera komertzial, profesional edo industrialen titularrak. Plaza bat emango da jarduera bakoitzeko, I. eta II. eremuetan aparkaleku plazarik jabetzan edo administrazio emakidan ez badute.

e) V. taldea.

I. eremuan bizi direnak. Plaza bat emango da bizikidetza unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoitzeko, nahiz I. eta II. eremuetan aparkaleku plaza bat jabetzan eduki edo edozein tokitan dela ere administrazio emakidan plaza bat izan, hirugarren aparkaleku plaza bat behar duela justifikatzen badu. Talde horren barruan sartzen dira aparkaleku honetan hirugarren plaza bat eskatu duten I. eremuko bizilagunak.

f) VI. taldea.

II. eremuan bizi direnak. Plaza bat emango da bizikidetzaren unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoizteko, I. eta II. eremuetan aparkaleku plazarik jabetzan ez badu edo administrazio emakidan plazarik ez badu, edozein tokitan dela ere.

g) VII. taldea.

II. eremuan bizi direnak. Plaza bat emango da bizikidetzaren unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoizteko, nahiz I. eta II. eremuetan aparkaleku plaza bat jabetzan eduki edo edozein tokitan dela ere administrazio emakidan plaza bat izan, beste aparkaleku plaza bat behar duela justifikatzen badu. Talde horren barruan sartzen dira aparkaleku honetan beste plaza bat eskatu duten II. eremuko bizilagunak.

h) VIII. taldea.

II. eremu gisa definituriko lehentasun eremuan kokatutako jarduera komertzial, profesional edo industrialen titularrak. Plaza bat emango da jarduera bakoizteko, I. eta II. eremuetan aparkaleku plazarik jabetzan edo administrazio emakidan ez badute.

i) IX. taldea.

II. eremuan bizi direnak. Plaza bat emango da bizikidetzaren unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoizteko, nahiz I. eta II. eremuetan aparkaleku plaza bat jabetzan eduki edo edozein tokitan dela ere administrazio emakidan plaza bat izan, hirugarren aparkaleku plaza bat behar duela justifikatzen badu. Talde horren barruan sartzen dira aparkaleku honetan hirugarren plaza bat eskatu duten II. eremuko bizilagunak.

j) X. taldea.

Plaza bat eskatu duten eta aurreko taldeetan sartu ezin diren Donostiako gainerako bizilagunak. Plaza bat emango da bizikidetzaren unitateak benetan okupatutako etxebizitza bakoizteko. Halakoei behin-behingoan emango zaie plaza (modu prekarioan), aurreko lehentasun taldeetan sartzen den eskatzailearen bat agertu arte. Hala gertatuz gero, plaza nahitaez utzi beharko dio eskatzaile berriari.

LEHENTASUN EREMUAK

I. EREMUA

KALEA	EREMUA	BIKOITIAK		BAKOITIAK	
		ZENBAKIA	ZENBAKIA	ZENBAKIA	ZENBAKIA
ANDIA	I	T	T	T	T
ALDAPETA	I	2	48	1	9

ARRASATE		T	T	T	T
BENGOETXEA		T	T	T	T
BERGARA		T	T	T	T
BLAS DE LEZO		T	T	T	T
BOULEVARD ZUMARDIA				T	T
CAMINO		T	T	T	T
EASO		2	20	1	31
ELKANO		T	T	T	T
ETXAIDE		T	T	T	T
HONDARRIBIA		2	24	1	17
FORUEN PASEALEKUA		T	T	T	T
GARIBAI		T	T	T	T
LERSUNDI JENERALA		T	T	T	T
GETARIA		2	14	1	17
GIPUZKOA PLAZA		T	T	T	T
HERNANI		T	T	T	T
IDIAKEZ		T	T	T	T
KONTXA PASEALEKUA		2	18	1	43
LEGAZPI		T	T	T	T
ASKATASUNAREN HIRIBIDEA		T	T	T	T
LOIOLA		T	T	T	T
MANTEROLA		T	T	T	T
MARINA		T	T	T	T
MIRAKONTXA PASEALEKUA		2	10	1	13
MIRAMAR		T	T	T	T
OKENDO		T	T	T	T
AITA VINUESA		T	T	T	T
PEÑAFLOIDA		T	T	T	T
ERREGINA ERREGENTEA		8		9	
REPUBLICA ARGENTINA		T	T	T	T
SAN BARTOLOME		T	T	T	T
SAN BARTOLOME kalexka		T	T	T	T
SAN MARTZIAL		T	T	T	T
SAN MARTIN		T	T	T	T
SANTA KATALINA		T	T	T	T
TRIUNFO		T	T	T	T
TXURRUKA		T	T	T	T
URBIETA		2	22	1	13
ZARAGOZA PLAZA		T	T	T	T
ZUBIETA		T	T	T	T
ZUBIETA PLAZA		2			



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Mugikortasuneko Administrazio Atala
Sección Administrativa de Movilidad

Urdaneta, 13 - Tel. 943481380 - Faxa 943481328 - www.donostia.org
20006 Donostia-San Sebastián

KALEA	EREMUA	BIKOITIAK		BAKOITIAK	
		ZENBAKIA		ZENBAKIA	
31 DE AGOSTO	II	T	T	T	T
ALDAMAR	II	T	T	T	T
ALFONSO VIII	II	T	T	T	T
ALTO DE AMARA	II	T	T	T	T
AMARA	II	T	T	T	T
ANGEL	II	T	T	T	T
ARBOL DE GERNIKA	II	T	T	T	T
ARROKA	II	T	T	T	T
AUTONOMIA	II	T	T	T	T
BILBAO,PZ DE	II	T	T	T	T
BOULEVARD,AL DEL	II	T	T		
BUEN PASTOR,PZ DEL	II	T	T	T	T
CAMPANARIO	II	T	T	T	T
EHUNURTEURRENAREN PLAZA	II	T	T	T	T
KONSTITUZIO PLAZA	II	T	T	T	T
EASO	II	22	74	33	83
EASO	II	T	T	T	T
EASO PLAZA	II	T	T	T	T
ENBELTRAN	II	T	T	T	T
ESTERLINES	II	T	T	T	T
EUSKAL HERRIA	II	T	T	T	T
FERMIN KALBETON	II	T	T	T	T
HONDARRIBIA	II	26	50	19	37
ETXAGUE JENERALA	II	T	T	T	T
JAUREGI JENERALA	II	T	T	T	T
GETARIA	II	16	20	19	23
IJENTEA	II	T	T	T	T
IÑIGO	II	T	T	T	T
JUAN DE BILBAO	II	T	T	T	T
LARRAMENDI	II	T	T	T	T
LASALA PLAZA	II	T	T	T	T
MARI	II	T	T	T	T
KALE NAGUSIA	II	T	T	T	T
MORAZA	II	T	T	T	T
NARRIKA	II	T	T	T	T
PEDRO EGAÑA	II	T	T	T	T
PERUJOANTXO	II	T	T	T	T
ARRANDEGI KALEA	II	T	T	T	T
PRIM	II	T	T	T	T
PORTU KALEA	II	T	T	T	T
ERREGINA ERREGENTEA	II	2	6	1	7

ERREGE-ERREGINA KATOLIKOAK	II	T	T	T	T
SALAMANCA PASEALEKUA	II	T	T	T	T
SALUD	II	T	T	T	T
SAN JERONIMO	II	T	T	T	T
SAN JUAN	II	T	T	T	T
SAN LORENZO	II	T	T	T	T
SAN BIZENTE	II	T	T	T	T
SANCHEZ TOCA	II	T	T	T	T
SANTA KORDA	II	T	T	T	T
SARRIEGI PLAZA	II	T	T	T	T
SORALUZE	II	T	T	T	T
GAZTELUBIDEA	II	T	T	T	T
TRINITATE PLAZA	II	T	T	T	T
URBIETA	II	24	68	15	61
URDANETA	II	T	T	T	T
VALENTIN OLANO	II	T	T	T	T
VALLE LERSUNDI PLAZA	II	T	T	T	T
KORUKO ANDRE MARIA	II	T	T	T	T
ZULOAGA PLAZA	II	T	T	T	T

43.2.- I. eremuan dauden ostatu jarduerak ere eskatu ahalko dituzte aparkaleku plazak, 4 logelako edo jardueraren zati bakoitzeko bat. Gisa honetako eskabideetako plazak biltzeko behar funtzionala dela eta, beharrezkoa izango da kokapena zehaztea, plazak hautatzeko prozedura orokorrari ekin aurretik.

Zozketa publikoa.

44.1.- Plazak hautatzeko ordena zozketa publiko bidez ezarriko da. Izapidetutako eskabide guztiak sartuko dira zozketan, agiri honetako 43. artikuluko irizpideen arabera sailkatutako taldeetan ordenatuta.

44.2.- Zozketa publikoa noiz, zer ordutan eta non egingo den tokiko prentsan iragarriko da, eta Udalaren webgunean nahiz udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

44.3.- Udalak zozketaren ondoriozko behin betiko zerrendak bidaliko dizkio enpresa emakidadunari, erabilera eskubidea emateko kontratuak formalizatzeko.